

## **TXOMIN ENEKO PROIEKTUARI ETA HORREN GAINEAN** **EMANDAKO INFORMAZIO DESBERDINEI ETA KONTRAJARRIEI** **BURUZKO KONTROL MOZIOA**

Ricardo Burutaran Ferrék, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua babestean, honako **KONTROL MOZIO** hau aurkeztu du Txomin Eneko proiektuari eta haren inguruan emandako informazio desberdinei eta kontrajarriari buruz. Mozioa joan den urriaren 16ko batzordean landutako interpelazioaren ondorioz jarri da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Eneko Goiak, Donostiako alkateak, gobernuan igarotako lehenengo 100 eguneko balantzea aurkeztu zuen jendaurrean, eta 28. puntuan honela zioen, hitzez hitz: “Txomineneko lurzorua jabeekiko akordioa, eraikitze lanei ekiteko desblokeoa”.

Irailaren 28ko agerraldian, Hirigintza Sostengagarriko ordezkariak berak esan zigan ez zekiela nork idatzi zuen puntu hori. Are gehiago, agerraldi horretan argi geratu zen ez zegoela akordiorik lurzoruko jabeekin (errealitatean, jarrerak ez daude hain gertu) eta lanak ez zeudela hastear; aitzitik, lanak geratzeko asmoa dago, gehienez ere, bi urteko epean.

Hirigintza Sostengagarriko ordezkariaren agerraldian esan zen, bestalde, ABEE irabazleak Kontratazio Mahaiak proposatutako baldintzak onartu zituela. Horrek gudan eragindako harriduraren aurrean, neurri hori, ustez, adostu zuten datari buruz galdetu genuen. Akordioa joan den uztailaren 2an hartu zutela erantzun ziguten. Haatik, ez da egia eskaera hori Kontratazio Mahaian landu zenik.

Bestalde, Udalak ABEEri igorri zion jakinarazpenean, berariaz adierazten da Kontratazio Mahaiak, 2015eko uztailaren 2an, emakida kontratua esleitzeko proposamena onartu zuela; baieztapen hori, ordea, ez da zuzena. Egia da hasieran banatutako gai zerrendan gai hori agertzen zela eta honako hau esaten zela: *IV. gutun-azalaren edukari buruzko txostena. Gutun-azalak izenburu hau zeukan: A.U. L. O. 05 TXOMINENEA Exekuzio Unitatea eta globala gauzatzeko Hirigintza Emakida automatikoki balioesteko irizpideen gaineko Proposamena eta ausarkeriazko bajeen gaineko idatziaren gaitzespena, txosten juridikoaren arabera*”. Gain zerrenda gero zuzendu zen, aztertu beharreko gaia honela adierazita: “*TXOMIN UTEri erantzuna, baja temerarioak ez izateari buruzkoa*”.

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -  
20003 Donostia

Horrenbestez, ez da egia joan den uztailaren 2ko Kontratazio Mahaiak kontratu horri lotutako esleipen proposamenik onartu zuenik, ni neu bertan egon bainintzen, nira taldearen ordezkari gisa.

Azkenean, urriaren 8ko Kontratazio Mahaian gaia “joan den uztailaren 2ko TGBn aztertu zela” aipatu zen, eta hori ere gezurra da. Gai hori, hain zuzen, ez zen landu TGBn; are gehiago, uztailaren 2an ez zen TGBren bilerarik egin.

Urriaren 16ko batzordean, alkateak, lehen puntuari dagokionez, "akats" bat izan zela azaldu zuen, baina ez zuen zentzuzko azalpen bakar bat ere eman bigarren puntuari buruz.

Hori guztia kontuan hartuta, izenpetzen duen zinegotziak honako **KONTROL MOZIO** hau aurkezten du:

- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio informazioa zaindu eta egiazta dezan jendaurrean eman baino lehen; horrela, iritzi publikoa desinformatzen eta nahasten duten informazio okerrak edo akatsak saihestuko dira.
- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio neurri eraginkorrek aplikatu dituzan akatsak saihesteko, hala nola Kontratazio Mahaiak, formalki behintzat, aztertu ez dituen gaiak aztertutzat ematea.

Donostia, 2015eko urriaren 23a.

Ricardo Burutaran Ferré  
**EH Bilduren Udal Taldeko zinegotzia**